


Gazteleku

Deporte escolar

Noticia de Deia
Deia
gazteleku@deia.eus



CUARTA JORNADA DE LA LIGA DE VOLEY PLAYA ESCOLAR EN LA PLAYA DE EREAGA // P.25

URDANETA IKASTETXEAK TXIKIEN ESKUBALOI EGUNA ANTOLATU ZUEN // P.26



Partido entre Urdaneta y Dosa. Foto: Joxe Sanjauregi

● El Athletic se hizo con el torneo solidario organizado por el Uritarra // P.4

● Equipos participantes de los grupos A y B del torneo celebrado en Larrabetzu // P.5

ESKUBALOIA



(1) Barakaldo. (2) Eskolapioak. (3) Kukullaga Etxebarri. (4) Urdaibai Eskubaloia Taldea.

Urez blaitutako jaia



URDANETA IKASTETXEAK TXIKIEN
ESKUBALOI EGUNAREN 21. EDIZIOA
OSPATU ZUEN; EURIK EZIN IZAN
ZUEN IKUZKIZUNA GOIBELDU

Miriam Rodríguez-en erreportajea
Jose Sanpedro-ren argazkiak



ESKUBALOIA



E GURALDI txartari, aurpegi ona. Hori dio errefracu ezagunak, eta bat dator asteburu honetan norgehiagoka eta txapelketetan gertatu denarekin. Eguraldiaren iragarpenek goiza ateri egongo zela iragartzen bazuten ere, azkenean hodeiek euria ekarri zuten, baina ez nahikoa egun horretan antolatutakoa hondatzeko. Hori izan zen Urdaneta ikastetxeko eskubaloia ataleko arduradunek, aurreko larunbatean bertan Eskubaloia Egunaren hogeita batgarren edizioa antolatu baitzuten. Aurretik, benjamin, kimu eta haurren kategorietako 49 taldek hartu zuten parte ekitaldian, eta 1.000 lagun baino gehiago etorri ziren, jokalaria, antolatzaileak eta gurasoak besteak beste.

Partidak goizeko 9.00etan hasi ziren ikastetxe osoan prestatu ziren hamalau zelaietan. Edonora begiratuta ere, partida bat jokatzen ari zen. Hainbat asko alboz alboko zelaietan, eta bozgorailuetatik jokalaria guztiak animatzen zituzten, bustitzen ari bezirenean. Alabaina, esatariak zioenez, "lau tanta besterik ez dira izan".

Ikastetxeko jokalaria antolatzaileak izan ziren gonbidatutako klubentzat. Gehienak Bizkaitik etorri ziren, esaterako, Zuazo, Basauri, Loyola Indautxu, Trapagaran, Ongarai, Askartza, Barakaldo, Errotabari, Eskolapinak, Urdabai, Urbe Kostak, Beltzagorri edo Kukullaga, azken horiek ileorde laranjekin. Gipuzkoako taldeak ere jokatu zuten, Hernanik eta Eibarrek adibidez, baita Kantabriakoak ere,

49 taldek hartu zuten parte ekitaldian, eta 1.000 lagun baino gehiago etorri ziren, jokalaria eta gurasoak besteak beste

Talde bakoitzeko lehen sailkatuek finalurrekoak jokatu zituzten, eta finalak ikastetxeko kiroldegian izan ziren

Colindresen esaterako. Ekitaldia txapelketa gisa antolatu zen, eta finalurrekoak eta finalak izan zituen kategoriatan bakoitzeko. Jokatze sistema honelakoa izan zen: talde guztiak lau taldeetan banatu ziren kategoriatan bakoitzeko. Talde bakoitzeko lehen sailkatuek finalurrekoak jokatu zituzten, eta garaileek aurrez aurre jokatu zituzten finalak, ikastetxeko kiroldegian. Berdin izan zegoen, antolatzaileek bi belizko hartu zituzten kontuan: finalurrekoetan berdinez gero, urrezko gola sartzen zuenak irabaziko zuen, hau da, sailkatu zuten ostean gola sartzen zuen lehenak. Finaletan, bost minutuko huzapena jokatu zen, eta ondoren ere berdinduko balute, urrezko golaz baliatuko ziren. Partida bakoitzak hogi minutu iraun zuen,

eta norgehiagoka batetik bestera bost minutuko atsedena zegoen.

Txapelketaren garapena zuzenean kontatu zuten Urdaneta eskubaloien Twitter bidez, parte-hartzaile guztiei adieraziz emanda. Parte hartu zuten klubek mezuak utzi zituzten zer ondo pasatu zuten azaltzeko, emaitza edozein zela ere.

Bestalde, jokalaria bakoitzak txapel bat jasozuen ogitarteko eta adarri baterako, eta beste bat elastiko baten zozketan parte hartzeko. Gainera, txosna bat jarri zuten nahi zuenak berri indarra hartzeko txostorra edo tortilla ogitarteko batekin. Ikastetxeko kafeategiak ere hainbat lekutatik ikastetxera etortzeko guztiak artatu zituen.

Txapelketa hau klasikoa da eskubalari eskubaloian. Helburua da bereziki Bizkaiko klubak elkartzea kirol hau sustatzeko jai handi batean. Beste ikastetxe batzuek, Askartza Claretetik esaterako, edota beste klub batzuek, Muskizetik esaterako, antzeko jardunaldiak antolatzen dituzte.

Ekitaldi horretaz gain, asteburu honetan hainbat final ospatu dira, besteak beste, Bizkaiko Minikopa Lasarreko kiroldegian. Bertan, kadetetik seniorrera arteko partidak jokatu ziren. Halaber, eskubaloia inklusiboko topaketak egon ziren, eta gara bat ospatu zen norgehiagoka guztiak bukatu ostean. Bestalde, azpimarratu behar da Bizkaia Espainiako txapelketako finala egongo dela aspaldiko partez, nesken haurren kategorian. Kukullaga Etxebarri sailkatu zen aurreko fasea irabazi ostean, beren kiroldegian jokatuta. Bizkaiko beste parte-hartzaileak, Basauri aitzitik, ezin izan zuten finalera sailkatu, Portuvedran jokatutako taldekako fasean.

Azkenik, gogoratu behar da egun gutxi barru hondartzako eskubaloia jardunaldiak hasi direla hainbat lekutan, Balcion edo Basaurin besteak beste, eta balaz gainera eskubaloia jardunaldia Fadura. Eskubaloia oraindik luze joko du.



(5) Urdabai Eskubaloia Taldea.
(6) Urdaneta. (7) Zuazo.
(8) Zuazo.

Energy Wallet
6 meses, 12 meses, 24 meses

Compra tu energía por meses y utilízala donde quieras.

Ahorrando comprando ya tu energía en paquetes de 6, 12 o 24 meses. Utilízala en tu vivienda habitual y en tu segunda residencia. Controlalo todo en tiempo real desde tu móvil.

información en energywallet.iberdrola.es